



LEHIAKETAREN OINARRIAK

1.- DEIALDIA ETA ANTOLATZAILEA

Bizkaidendak, Plentziako Merkataraitza, Ostalaritza eta Zerbitzuen Elkartea eta Plentziako Udala.

2.- PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketan edozein lokal edo ostalaritza-establezimenduk izena eman ahal izango du, edozein dela ere bere kalifikazioa edota kategoria (taberna, kafetegia, jatetxea, hotela...), betiere horretarako ezarritako epearen barruan izena ematen badute eta oinarri hauek onartzen badituzte.

3.- LEHIAKETAREN EGUNA

Martxoko azken asteburuan. Martxoaren 27tik (barikua) 29ra (domeka).

4.- SARIAK

- 1. saria: txapela eta garaikurra
- 2. saria: garaikurra
- 3. saria: garaikurra

Bezero guztien botoen artean, herriko saltokietan kontsumitzeko 3 bopari txartel zozketatuko dira, 200 €, 100 € eta 50 €-koak, hain zuzen ere.

5.- PINTXOAK

Lokal bakoitzak pintxo bakarra aurkez dezake. Lehiaketara aurkezten diren pintxoak lehiaketa egunetan prestatu eta jendearen eskura jarri beharko dira, honako ordutegian:

- Ostiraletan 21:00etatik 23:00etara
- Larunbatetan 12:00etatik 15:00etara eta 21:00etatik 23:00etara
- Domekan 12:00etatik 15:00etara

Pintxo guztiek behar bezala identifikatuta egon beharko dute identifikazio-txartel batekin. Lehiaketaren antolakuntzak doan emango dizkie parte-hartzaileei publizitate-material guztia, boto-txartelak, zigiluak eta txartela.

Ostalariak konpromisoa hartu beharko dute lehiaketak sortzen duen eskaera handiagoari erantzuteko adina pintxo edukitzeko.

6.- PREZIOA

Erakundeak 2,5 € gomendatzen du pintxoko.

7.- EPAIMAHAIA

EPAIMAHAI HERRIKOIA: Lehiaketan parte hartzen duten establezimenduetan "Pintxo-Porte" bat banatuko da, parte hartzen duten taberna guztien izenak jasotzen dituen. Bezeroek gutxienez 6 pintxo probatu beharko dituzte opari txartelen zozketan parte hartu ahal izateko. Horretarako, ostalariak beren establezimendua ordezkatzeko duen pintxo probatzen duten bakoitzean bezeroei pintxoportea zigilatuko zaie. Gutxienez 6 zigilurekin (lehiatutako 6 pintxo) pintxorik onenaren alde bozkatu ahal izango dute, pintxoportean euren izen-abizenak, telefonoa eta e-posta helbidea betez eta parte hartzen duten establezimenduetan instalatutako postontzietan sartuz. Honela, pintxo gustokoenaren alde bozkatzeko gain, udalerriko saltokietan 200 €, 100 € eta 50 €-ko opari-txarteletako bat lortzeko aukera izango dute.

Herri epaimahai honen erabakia balorazioaren %100a izango da eta bertatik aterako dira lehenengo 3 sailkatuak.

Horretarako, "pintxo-porte" guztien kontaketa egingo da martxoaren 29an, domeka, 16:00etan. Lehenengo sailkatua boto gehien lortu dituen pintxo izango da, bigarrena boto kopuruan hurrengoa eta hirugarrena hurrengoa.

8.- SARI BANAKETA

Sari banaketa martxoaren 29an egingo da, domeka, Eliza plazan (Merkatuan), 17:00etan.

9.- EZ-BETETZEAK

Lehiaketaren oinarriren bat ez betetzekotan, ostalaritza-establezimendua deskalifikatu egingo da. Antolakuntzak arreta zorrotza eta berezia eskainiko dio pintxo parte-hartzaileak jendearen eskura egoteari lehiaketaren egunetan zehar ezarritako ordutegian.